



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko urtarrilaren 25a

7. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateak Frankfurtetako liburu azokan parte hartzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (3. or.).
- Galdera, Nafarroan –eta zehazki Erriberan– airearen kalitate optimoa bermatzeko plan bat abian jartzeari buruzkoa. Jabi Arakama Urtiaga jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Jotaren Egunari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Foru Erkidegoak FITUR 2022 azokan izandako parte-hartzeari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Erljioaren irakasgaiari buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Navarra Music Commission abian jartzeari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, jendeak autobiak gogoz kontra ordaintzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, iragan irailaren 7an Espainiako Gobernuko Lurralde Politikako ministroarekin egindako bilerari buruzko informaziorik ekitaldi publikoen informazio-agendan ez emateari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzari buruzko Ekintza Planean epe laburrera aurreikusitako neuriei esker lortutako helburuei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako ubidean eguzki plakak paratzeko proiektuari buruzkoa. María Elena Llorente Trujillo andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Iruña-Noaingo aireportuko segurtasun-sistemako akatsei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, AP-15ean joan-etorrian 24 ordu baino lehenago egiten diren bidaien finantzaketari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan deitutako oposizioetan eta oposizio-lehiaketetan – Hezkuntzakoak eta O-NOZekoak barne– euskara baldintza izan den lanpostuen portzentajeari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (9. or.).

- Galdera, Nafarroako ikasle guztiek euskaraz gutxienezko maila bat lortu behar izateari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, jakiteko ea Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak zer neurri hartuko dituen eduki arrazistako adierazpenak egin daitezten ekiditeko. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Iruñean segurtasun falta ustez areagotu izanari buruz Iruñeko alkateak eginiko adierazpenei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, soldata-arrakalaren ondorioz areagotutako gizarte-desparekotasunari buruzkoa. Pablo Azkona Molinet jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, finantzaketa-eredu berriaren eraginez Nafarroako 71 udalerriri beren diru-sarrerak murrizteari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (12. or.).
- Galdera, 2022-2023 ikasturtean Haur Hezkuntzako lehen ziklorako ikastetxe publikoetan eskolatzeko prozesuaren edukiei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (12. or.).
- Galdera, suspertze-prozesurako oinarriari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, udal planeamenduan babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitza berrien portzentajeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateak Frankfurteko liburu azokan parte hartzeari buruzkoa.*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitateak Frankfurteko liburu azokan parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasuneko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak kontroleko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Frankfurteko liburu azoka 2022ko urriaren 19tik 23ra bitarte egingen da.

Aurten, Espainia izanen da ohorezko herrialde gonbidatua; hartara, aukera paregabea dago munduari estatuko autonomia erkidego guztietako kulturaren eta literaturaren berri emateko. Zehaz-

ki, aukera ederra dago Nafarroako idazleentzat eta liburuaren sektorearentzat.

Duela 30 urte, 1991n, Espainia ohorezko gonbidatua izan zen jada. 2022ko azokari begira, #SpainFrankfurt2022 hautagaitzaren helburu nagusia da bere historia hurbileko unerik interesgarrienak bizi dituen Espainiako literaturari buruz atzerrian duten ezagutza hobetzea.

Ohorezko Gonbidatua Programan, Espainiak proiektu artistikoen sorta bat erakutsiko du, Espainiako kultur erakundeekin lankidetzan.

Espainiaren parte-hartzea Acción Cultural Española eta Kultura eta Kirol Ministerioko Liburuaren Zuzendaritza Nagusiak antolatzen dute, Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioarekin, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioarekin, Cervantes Institutuarekin eta Espainiako Editoreen Gremioko Federazioarekin lankidetzan.

Badakigu Frankfurt 2022ko azokan erakustoki berekia izanen dutela beste autonomia erkidego batzuek (Galizia, Euskadi, Andaluzia eta Katalunia), eta uste dugu Nafarroako Foru Komunitateak ez lukeela bertan egoteko aukera galdu behar.

Nafarroako liburuaren sektoreak eta foru erkidegoko egileek erakundeekin laguntza izanen al dute Frankfurten eremu bereki bat edukitzeko?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Nafarroan –eta zehazki Erriberan– airearen kalitate optimoa bermatzeko plan bat abian jartzeari buruzkoa.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan –eta zehazki Erriberan– airearen kalitate optimoa bermatzeko plan bat abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urtiagak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko

kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Erriberako Ekologistak Martxan elkarteak jarritako salaketaren ostean, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak orain dela gutxi Nafarroako Gobernuak premiaturik du airearen kalitateari buruzko plan bat taxutu eta bete dezan, herrialde honetako ozono-kutsaduraren maila nabarmen murrizteko.

Tuteraan, Funesen eta Erriberrin egindako neurketek erakutsi dute gairik gaitz egin direla, gutxienez ere 2011tik hona, lege ezarrita dauden balioak, giza osasunaren babesean objektiboki negatiboak diren balioetara iritsi arte.

Gauzak horrela, Nafarroako Gobernuko Ingurumeneko kontseilariari galdetzen diogu ea bere departamentuak zer urrats egin duen Nafarroan –eta zehazki Erriberan– airearen kalitate optimoa bermatzeko plan bat onesteko eta abian jartzeko.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urtiaga

Galdera, Nafarroako Jotaren Egunari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Jotaren Egunari buruz Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak batzordean ahoz erantzun diezaien:

Nafarroako Gobernuak pentsatua al du foru erkidegoaren egutegian egun bat ezartzea esklusibotasunez ospatzeko Nafarroako Jotaren Eguna?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

Galdera, Foru Erkidegoak FITUR 2022 azokan izandako parte-hartzeari buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Foru Erkidegoak FITUR 2022 azokan izandako parte-hartzeari buruz Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Garapen Ekonomikorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateak FITUR 2022an izandako parte-hartzeari buruz?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

Galdera, Erliñoaren irakasgaiari buruzkoa.

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Erliñoaren irakasgaiari buruz María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusita erliñoaren irakasgaia lege ezarritako gutxienez murriztuko dela laster, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak bere garaian Katalunian, Euskadin eta Galizian hartutako gisako neurriak hartuko al du –legeak horretarako bidea ematen du– enplegurik ez sunsitzeko eta mugagabe kontratatuta dauzkan langileen lanpostuak bermatzeko?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: M.^a Roncesvalles Solana Arana

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Maria Roncesvalles Solana Arana andreak

Galdera, Navarra Music Commission abian jartzeari buruzkoa.

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Navarra Music Commission abian jartzeari buruz Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura eta Kiroleko kontseilariak batzordean ahoz erantzun dezan:

Departamentua zer ari da egiten Navarra Music Commission abian jartzeko?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

Galdera, jendeak autobiak gogoz kontra ordaintzeari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea jendeak autobiak gogoz kontra ordaintzeari buruz Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren arabera, jendeak autobiak gogoz kontra ordaintzen ditu. Chivite andreak ere hori uste al du?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, iragan irailaren 7an Espainiako Gobernuko Lurralde Politikako ministroarekin egindako bilerari buruzko informaziorik ekitaldi publikoen informazio-agendan ez emateari buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, iragan irailaren 7an Espainiako Gobernuko Lurralde Politikako ministroarekin egindako bilerari buruzko informaziorik ekitaldi publikoen informazio-agendan ez emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren ekitaldi publikoen informazio-agendan zergatik ez zen iragarri iragan irailaren 7an Espainiako Gobernuko Lurralde Politikako ministro Isabel Rodríguezekin egindako bilera?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzari buruzko Ekintza Planean epe laburrera aurreikusitako neurriei esker lortutako helburuei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzari buruzko Ekintza Planean epe laburrera aurreikusitako neurriei esker lortutako helburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer balorazio egiten du Oinarrizko Osasun Laguntzari buruzko Ekintza Planean epe laburrera aurreikusitako neurriei esker lortutako helburuei buruz?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Nafarroako ubidean eguzki plakak paratzeko proiektuari buruzkoa.

MARÍA ELENA LLORENTE TRUJILLO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako ubidean eguzki plakak paratzeko proiektuari buruz María Elena Lorente Trujillo andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure Gobernuak zer arrazoi darabil estrategiko eta lehentasunezko hartzeko Nafarroako Ubidean eguzki plakak paratzeko proiektua?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Elena Lorente Trujillo

Galdera, Iruña-Noingo aireportuko segurtasun-sistemako akatsei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iruña-Noingo aireportuko segurtasun-sistemako akatsei buruz Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomikorako kontseilariari Batzordean ahoz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak zer egin du azken hila-beteotan Iruña-Noingo aireportuko segurtasun-sistemaren akatsak konpontzeko egin beharreko izapideak azkartzeko?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, AP-15ean joan-etorrian 24 ordu baino lehenago egiten diren bidaien finantzaketari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, AP-15ean joan-etorrian 24 ordu baino lehenago egiten diren bidaien finantzaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak zenbat denbora aurreikusten du finantzatzen jarraitzea AP-15ean joan-etorrian 24 ordu baino lehenago egiten diren bidaiak, tarifak igo ostean?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan deitutako oposizioetan eta oposizio-lehiaketetan –Hezkuntzakoak eta O-NOZekoak barne– euskara baldintza izan den lanpostuen portzentajeari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan deitutako oposizioetan eta oposizio-lehiaketetan –Hezkuntzakoak eta O-NOZekoak barne– euskara baldintza izan den lanpostuen portzentajeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan deitutako oposizioetan eta oposizio-lehiaketetan –Hezkuntzakoak eta O-NOZekoak barne– lanpostuen zer portzentajetan izan da euskara baldintza?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Nafarroako ikasle guztiek euskaraz gutxienezko maila bat lortu behar izateari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako ikasle guztiek euskaraz gutxienezko maila bat lortu behar izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak baztertu egiten al du Nafarroako ikasle guztiek euskaraz gutxienezko maila bat lor dezaten nahitaezkozat ezartzea?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, jakiteko ea Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak zer neurri hartuko dituen eduki arrazistako adierazpenak egin daitezkeen ekiditeko.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak zer neurri hartuko dituen eduki arrazistako adierazpenak egin daitezkeen ekiditeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Kezkaz ikusten ari gara nola zenbait ardura-dun politikok –Iruñeko alkate Enrique Maya, kasu– Nafarroan gertatzen diren delituak eta pertsonen nazionalitatea lotzen dituzten. Baieztapen horiek bizikidetasunari kalte handia egiten diote, eta diskurtso arrazista eta xenofoboak elikatzen dituzte.

Hori dela-eta, parlamentari naizen honek hauxe galdetzen dut:

• Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak zer neurri hartuko du eduki arrazistako halako baieztapenak egin daitezkeen ekiditeko?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Galdera, Iruñean segurtasun falta ustez areagotu izanari buruz Iruñeko alkateak eginiko adierazpenei buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Iruñean segurtasun falta ustez areagotu izanari buruz Iruñeko alkateak eginiko adierazpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak urtarrilaren 27ko Legebiltzarren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iruñeko alkateak, Iruñean segurtasun falta ustez areagotu izanari buruz eginiko adierazpen batzuetan, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak aipatu ditu eta atzerritarrak "ia delitu guztien errudun" direla ziurtatu du.

Zer iritzi du Nafarroako Gobernuko lehendakariak Maya jaunaren adierazpenei buruz?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, soldata-arrakalaren ondorioz areagotutako gizarte-desparekotasunari buruzkoa.

PABLO AZKONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azkona Molinet jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, soldata-arrakalaren ondorioz areagotutako gizarte-desparekotasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azkona Molinet jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak urtarrilaren 27ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azken asteotan datu positiboak ezagutu ditugu; esaterako, langabeziaren bilakaerari buruz; edo, berrikiago, Foru Ogasunaren diru-bilketaren bilakaerari buruz. Hala ere, datu horiek gorabehera, beste indize batzuek guretzat kezka-iturri izaten segitzen dute, adierazten dutenak gizarte-desparekotasunak areagotzen ari direla eta gure gizartearen parte bat txirotasunean amiltzen ari dela.

Zer iritzi du Gobernuak datu horien inguruan, adierazten baitute gizarte-desparekotasunak gorantz doazela, soldata-arrakalaren ondorioz areagotuak?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Galdera, finantzaketa-eredu berriaren eraginez Nafarroako 71 udalerriri beren diru-sarrerak murrizteari buruzkoa.

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, finantzaketa-eredu berriaren eraginez Nafarroako 71 udalerriri beren diru-sarrerak murrizteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak harro agertu da, aurreko duen aurrekontua historikoa izateaz. Hori horrela izanda, bidezkoa iruditzen al zaizu Nafarroako 71 udalerriri beren diru-sarrerak murriztea finantzaketa-eredu berriaren eraginez?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

Galdera, 2022-2023 ikasturtean Haur Hezkuntzako lehen ziklorako ikastetxe publikoetan eskolatzeko prozesuaren edukiei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2022-2023 ikasturtean Haur Hezkuntzako lehen ziklorako ikastetxe publikoetan eskolatzeko prozesuaren edukiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

egin du, Nafarroako Gobernuak ostegunean, 2022ko urtarrilaren 27ko kontrolerako Osoko Bilkuran, ahoz erantzun dezan:

Funts publikoekin sostengaturiko Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako lehen ziklorako (0-3 urte) ikastetxeetan haurren 2022-2023 ikasturterako aurreinskripzioa eta matrikula egiteko prozedura argitaratu gabe egonda, Hezkuntzako kontseilariak departamentu horretan 0-3 ziklorako zerbitzu bat eratzeari buruzko iragarpena egin zuen, bai eta tarifak murriztu egingen direla ere, eta 2022-2023 ikasturterako 391 postu sortuko direla.

Azken deialdian, zenbait familiak ez zuten posturik lortu ikastetxe publikoetan, eta aukera hori izan beharko lukete heldu den ikasturtean.

Bestalde, Gobernuak gai horri buruzko konpromiso bat hartu du aurrekontuen tramitazioan.

Zeintzuk izanen dira 2022-2023 ikasturtean Haur Hezkuntzako lehen ziklorako ikastetxe publikoetan eskolatzeko prozesuaren edukiek postu

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau

kopuruari, tarifei eta onarpen irizpideei dagokienez?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, suspertze-prozesurako oinarriari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea suspertze-prozesurako oinarriari buruz Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2022ko urtarrilaren 27ko Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Zein oinarriari helduta ekinen dio Nafarroak suspertze-prozesuari?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, udal planeamenduan babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitza berrien portzentajeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, udal planeamenduan babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitza berrien portzentajeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak urtarrilaren 27ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

PSN eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak foru lege proposamen bat aurkeztu dute, Nafarroako Foru Komunitatean etxebizitza babestu eta ordainerrazen parke bat sustatzekoa.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru

Dekretuaren 54.1 artikuluko indardunak honakoa dio:

“Udal plan orokorretan behar diren determinazioak sartu beharko dira ziurtatzeko ezen, planeamenduaren behin betiko onespentetik hasi eta bederen zortzi urteko eperako aurreikusitako bizitegi-ahalmen berriaren %50, gutxienez, babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitzak eraikitzeke izan dadin. Ehuneko hori 70era igoko da Iruñerriko udalez gaindiko planeamenduaren eremuan sartuta dauden udalerrien udal plan orokorretan. Aurrekoa gorabehera, urbanizazio jarduketara bat objektiboki bidegabe dela justifikatzen bada, bizitegi-ahalmena %50era jaisten ahalko da”.

Aipatu foru lege proposamenaren 2. artikuluan 54.1 artikuluko hori aldatzea proposatzen da, Iruñerriko udaletako aurreikusitako gehienezko ehuneko 70eko portzentajea ordezkatzuz populazioaren arabera ehuneko desberdinekin, gehienez ere ehuneko 50ekoa izanen delarik 10.000 biztanle baino gehiagokoentzat eta Iruñerrikoentzat.

Hori guztia ikusita, honako hau galdetzen diot Nafarroako Gobernuari:

Zer iruditzen zaio Gobernuari udal planeamenduan babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitza berriak ehuneko 70 izatetik ehuneko 50 izatera igarotzea?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

